

{ profila }

NATALIA GINZBURG

Gauza txikiak kontatzeko handitasuna erakutsi zuen idazlea

Idazle txiki batek ez du handi batek bezala idazteko gaitasuna, baina bai hark bezala sentitzekoa. Halatsu zioen Natalia Ginzburg idazle italiarrak. Bat gentozkeen bere buruaz ari izan ez balitz. Hitz horiekin eta beste askorekin bere umiltasuna erakutsi zuen, inondik inora ez bere txikitasuna. Izan ere, esan genezake Natalia Ginzburgen obra gauza txikien handitasunaren erakusgarri bikaina dela.

Duela hogeit hamar urte hil zen, herenegun egunez, Natalia Ginzburg idazle italiarra, Natalia Levi sortzez. Palermon jaio zen, 1916ko uztailaren 16an. Haren ama, Lidia Tanzi, abokatu sozialista baten alaba zen, eta aita, Giuseppe Levi, unibertsitateko anatomiako irakaslea. Ama katolikoa eta aita judua ziren, baina ez ziren praktikanteak eta, Nataliak idatzi zuenez, ateoak zirela esan ohi zuten. Berak heziketa laikoa jaso zuen. 1919an, aita Turinera bidali zuten, eta harekin joan zen familia guztia. Gurasoak eta osaba-izeba batzuk atxilotu eta epaitu egin zituzten beren ideia antifaxistak zirela-eta.

Oso gazte zela argitaratu zuen Nataliak bere lehen kontakizuna “Solaria” aldizkarian: “I bambini”, 1933an. Bost urte geroago, Leone Ginzburgekin ezkondu zen. Jatorri errusiarreko intelektual komunista zen senarra, errusiar literaturako irakaslea. Ezkontzerako, kartzelan bi urte emana zen bere ideologia zela-eta. Halaber, ordurako Enaudi argitaletxea sortu zuen Cesare Pavese eta Giulio Enaudirekin. Ginzburg senar-emazteek harreman handia izan zuten Paveserekin, Carlo Levirekin eta Turineko beste hainbat intelektual antifaxistarekin.

FAXISMOAREN JAZARPENA

1940an, Mussoliniren Gobernuak Abruzzo eskualdeko Pizzoli herrian konfinatu zuen Leone Ginzburg, eta familia guztia hara joan zen bizitzera. Hiru seme-alaba izan zituzten, bi Turinen jaioak eta hirugarrena Pizzolin. Han zi-



Natalia Ginzburg.

rela argitaratu zuen Nataliak bere lehen eleberria, “La strada che va in città” (“Hirira doan bidea”), *Alessandra Tornimparte* izengotia erabilita, arrazalegediaren oztopoei iskin egitearren. Hiru urte geroago, 1945ean, bere benetakoz izenarekin berrargitaratu zuen, ordea.

Leone Ginzburg 1944an atxilotu eta hiltzeraino torturatu zuten Erromako kartzela batean. Urte berean, Natalia Ginzburg Erromara itzuli zen aske, eta Einaudi argitaletxean lan egiten hasi zen. Bertan argitaratu zituen bere eleberriak eta harreman estua izango zuen beti argitaletxe horrekin. 1945eko udazkenean, Nataliaren gurasoak eta

seme-alabak Turinera itzuli ziren, okupazio alemanak iraun zuen hilabetetan Toscanan babestuta egon ondoren, eta hara joan zen bera ere.


1947an bigarren nobela argitaratu zuen, “È stato così” (Eta horixe gertatu zen). Tristurarekin batera etsipena eta bortizkeria nagusi diren liburu horrekin Tempo saria irabazi zuen.

1950ean bigarren ezkondu zen Gabriele Baldini unibertsitateko irakasle eta ingeles literaturako adituarekin. Seme-alaba bi izan zituzten. Urte bi geroago, “Tutti i nostri ieri” (Gure atzo guztiak) argitaratu zuen, 1957an “Valentino” ipuin liburua eta “Sagittario” nobela, eta 1961ean “Le voci della sera” (“Arratseko ahotsak”) nobela laburra.

Ondoren, bere lanik adierazgarriena argitaratu zuen, 1963an: “Lessico familiare” (“Familiako lexikoa”) liburu autobiografikoa, Strega sari garrantzitsua irabazi zuena. Arrakasta handia lortu zuen lan horrekin. “Lessico familiare” arrakasta izan zuen bere lehen liburua izan zen, Ginzburgek “Non possiamo saperlo” (Ezin dugu jakin) saio bildumako “Autobiografia in terza persona” atalean dioenez. «Aurreko guztiek, arrakasta gutxi edo bat ere ez».

POLITIKA, ANTZERKIA, ZINEMA

1969. urtea nolabait mugarri bat izan zen Ginzburgen bizitzan. Urte horretan hil zitzaion bigarren senarra eta, beste alde batetik, gertakari batek ezkerreko intelektual italiar askorengan, eta oro har Italian, eragin handia izan zuen, baita 53 urteko emakume haren gan ere: Piazza Fontanako sarraskiak. Abenduaren 12an, Milango Banca Nazionale dell'Agricolturaaren egoitzaren aurkako atentatu batek 17 lagun hil zituen eta 88 zauritu ziren haren ondorioz. Egun berean, beste hiru bonbak eztanda egin zuten Erroman eta Milanen. Gladio operazioaren baitan CIAk eta Italiako inteligentzia zerbitzuek errekrutatutako neofaxistek bandera faltsuko operazioak egiten zituzten, besteak beste, Piazza Fontanako aten-



Ginzburgen «Familiako lexikoa» eleberri autobiografikoa, Fernando Reyk euskaratu eta aurten Igelak argitaratua.
GAUR8

tatua. Gertakari hark eragin zuzena izan zuen Brigada Gorriak taldearen sorreran eta ondorengo «berunezko urteak» deitutako aldian. Harrezkero, Ginzburg politikan zuzenean parte hartzen hasi zen.

Ginzburgek, hala ere, ez zion idazteari utzi, eta familia-harremanek osatzen duten mundu txiki horrekiko gero eta interes handiagoa erakutsi zuen. Horren erakusgarri dira hurrengo urteetan argitaratu zituen liburuak: «Caro Michele» (1973), «Famiglia» (1977), «La città e la casa» (1984) eta «La famiglia Manzoni» (1983).

Kontakizunak eta eleberriak ez ezik, saiakerak eta antzerki lanak ere idatzi

zituen. Hasierako antzezlanak enkar-guz idatzi zituen, baina gogoko lana zuela konturatu eta jarraitu egin zuen antzerki lanak idazten. Aipatzeko modukoak dira, besteak beste, «Ti ho sposato per allegria» (1970) eta «Paese di mare» (1972) lanak.

Itzulpenak ere egin zituen. Nabarmentzekoak dira Marcel Prousten, Gustave Flauberten eta Guy de Maupassanten zenbait lanenak.

Ginzburgen zenbait obra pantaila handira eraman dituzte, eta berak zinemaz idatzi zuen aldizkari batean. Idaztearen atzetik, zinemak pizten zituela bere jakin-min eta interes handienak esan zuen artikulu batean. «Maiz pen-

tsatzen dut zein den idaztearen eta film bat egitearen arteko desberdintasuna» Artikulu berean, film onak elefante zuriak bezain urriak direla zioen. Zinema-
rekiko harreman zuzenagoa ere izan zuen, 1963an, Pier Paolo Passoliniren «Il Vangelo secondo Matteo» (Mateoren arabera ebanjelioa) filmean Betania-ko Mariaren papera jokatu zuenean.

1983an, Italiako Alderdi Komunistako diputatu hautatu zuten; edonola ere, bere pentsaera politiko eta etikoa jendaurrean ez ezik, bere saiakeretan ere agertu zuen; esate baterako, abortuaren defentsan idatzitakoa edo Paulo VI.a aita santuaren aurkako testu bat, Francok 1975ean ETako militante biri

eta FRAPeko hiruri ezarri zien heriotza zigorra galarazi ez izana aurpegiatuz.

Erroman hil zen Natalia Ginzburg 1991ko urriaren 7an, 75 urte zituela.

IDAZLE «TXIKIA»

Lehen Mundu Gerra betean jaio zen Natalia Ginzburg, eta globalizazioaren hasieran hil. Ginzburgek familiako bizitza deskribatzeko zuen trebetasuna nabarmendu ohi da, harremanak, familiako emakumeen papera... Ukaezina da trebezia hori, baina askoz handiagoa da Ginzburgen jakituria. Bere inguru hurbilenetik hasita zabaltzen zituen bere kontakizunak, XX. mendaren kontakizun bilakatzeraino. Intimoa unibertsala izan daitekeela erakutsiz. Txikia, handi. Bere obraren ardatza giza harremanak ziren, gizon-emakumeen konplexutasuna. Hala ere, ez zuen idazkera konplexurik, itxuraz behinik behin, ez etxekoez hitz egitean, ez munduko gauza larrien berri ematean. Arrandiarik batere gabe eta bere izaerarekin bat, umiltasunez, pertsonaia guztiz gizatiarrak eta, beraz, konplexuak, eraikitzen zituen.

Pertsonaia konplexu horiek ez dira ilunak, ordea, oso argi sumatzen dira. Hain zuzen ere, Anton Txekhoven ezaugarri horixe miresten zuen Ginzburgek, berak ere bazuen ezaugarria, eta pertsonaiei begiratzeko gizatiartasuna, bere egin zuena. Idazle errusiarren biografia bat idatzi zuen, eta harekiko atxikimendu handia agertu zuen.

Hala ere, Natalia Ginzburgek idazle txikia zela zioen, eta halaxe idatzi zuen «Le piccole virtù» saiakera liburuan: «Baina bada baztertxo bat nire ariman oso ondo eta beti zer naizen jakinarazten didana, idazle txiki bat, txiki-txikia. Badakit, zinez. Baina ez dit axola handirik». Eta aurreraxeago: «Nahiago dut sinistu inor ez dela inoiz ni bezalako izan, honen idazle txikia banaiz ere, idazle gisa arkakuso edo eltxo bat izan arren». Horixe idatzi zuen bere buruaz ondorengo idazle italiar asko-

rengan eragin handia izan zuen obra-
ren egileak.

Aurreko pasarteak “Bertute txikiak”
liburuko “Nire lanbidea” saiokoak dira,
bokazioaren gaineko testu batekoak.
Hauxe dio haren hasieran: «Nire lanbi-
dea idaztea da, ondo dakit aspalditik.
Espero dut ez didatela gaizki interpreta-
tuko: ez dakit ezer ere idazten dudana-
ren balioaz. Idaztea nire lanbidea dela
dakit. (...) Nire lanbidea istorioak idaz-
tea da, gauza asmatuak edo gogoan di-
tudan nire bizitzako gauzak, baina, no-
lanahi ere, istorioak, kulturarekin
zerikusirik ez duten gauzak, oroimena-
rekin eta fantasiarekin bakarrik zeriku-
sia dutenak. Hau nire lanbidea da eta
hil arte egingo dut. (...) Aspaldi ulertu
nuen nire lanbidea dela. Bost eta ha-
mar urte artean zalantzak nituen, eta
batzuetan margotu nezakeela imajina-
tzen nuen, batzuetan herrialdeak zal-
diz konkistatuko nituela eta beste ba-
tzuetan makina berri garrantzitsuak
asmatuko nituela». Eta ondo egiten ze-
kien bere ofizioa, zalantzarik gabe bo-
kazioa ere bazuen ofizioa.

GINZBURG EUSKARAZ

Igela argitaletxeak Natalia Ginzburgen
hiru lan argitaratu ditu. 2001ean, “Hiri-
ra doan bidea”, Ginzburgen lehen ele-
berria, Pello Lizarraldek euskaratua. Li-
zarraldek berak euskaratu zuen Igelak
2003an argitara eman zuen “Arratseko
ahotsak”.

Urte berean, “Gure etxeko kontuak”
goiburupean argitaratu zuen “Lessico
famigliare” autobiografikoa. Itzulpena
Fernando Reyk egin zuen eta aurten
bertan berrargitaratu du itzultzaileak,
berriz ere Igelaren eskutik, “Familiako
lexikoa” goiburupean.

Jon Benitok “Hirira doan bidea” ele-
berriaren gainean idatzi zuen iruzkine-
an, Natalia Ginzburgen lanak beste hiz-
kuntza batzuetan irakur zitezkeela
zioen, eta Lizarraldek euskaratutako
eleberriaz gainera, egile italiarraren
beste liburu bat aipatu zuen: «‘Le pic-
cole virtù’ izango da egilearen lanik in-
teresgarrienetako bat». Bada, Benitok
aspaldi gomendatu zuen lan horixe ar-
gitaratu du aurten Alberdania argitale-
txeak: “Bertute txikiak”, Irene Hurta-

Ezkerreko irudian, Leone eta
Natalia Ginzburg. Lerroon azpian,
Irene Hurtadok euskaratutako
«Bertute txikiak» liburuaren azala.
GAUR8

dok euskarara ekarria. Kontakizun au-
tobiografikoaren eta saioaren arteko
lana da. «Nolabait esan liteke Ginzbu-
rrek hurbilen duenari buruz idazten
duela barruan daukanari buruz hitz
egiteko eta azkenean idazle orok nahi
lukeena lortzen duela, bere buruaz hitz
eginez mundu guztiari buruz idaztea»,
esan zuen Irene Hurtadok itzulpena-
ren aurkezpenean. Hain zuzen ere,
idazle handiek lortzen dutena; Natalia
Ginzburgen lorpena, kritikak onartu
ez ezik, nabarmendu ere egiten duena.

